

---

**KULTURA**


---


**OIHENARTEN ITZALA**

Euskaldungoak badu nori begiratu eta nor ohoratu. Noizbehinka iraganeko idazle klasikoen oihartzuna helerazten digute komunikabideek. Oraingoan Arnaut Oihenart dugu euskal zeruan dir-dirka ari zaiguna. Zuberoko izarra ez zaigu oraindik itzali. Bai zera! geroago eta argitsuago, distiratsuago ageri zaigula esango nuke.

Jende ikasia, unibertsitate inguruan ari dena, euskaltzale banaka batzu izan daitezke Oihenart eta gure idazle klasikoak ezagun edo etxeko dituztenak. Oraingoan, Arnaut Oihenarten laugarren mendeurrena dela eta, Mauleko herri-gizon honen sona herri xehearenganaino ere heleraztea on eta gogoko litzaiguke euskal letretan nolabait ari garen guztioi.

KARMEL aldizkaria ere ezin haren aipamentxoak egin gabe gelditu; eta hartaz jakintsu direnen lan jantziagorik, oraingoan, gure aldizkarira ezin ekarririk, nik neuk egingo dut ahalegintxo orrialde xume hauetan.

**Biografi zertzelada batzu**

1592.eko abuztuaren 7an jaio zen Maulen. Arnaut Oihenart jaunaren eta Joana Etchart andrearen bigarren semea. Aitaren

izena jarri zioten. Aita abokatua zen eta Zuberoako ahaliduna; amaren aldetiko aitona ere abokatu eta gorteko eskribaua.

1604.eko uztailean Arnaut Oihenart eta Jacques anaia zaharrena aitarik gabe gelditzen dira. Mauleko burjes eta merkatari zen aitonaren babespean izango dira gazteok gerora.

Aitaren eta familiarteko beste batzuren bideari atxekiz, zuzenbidea ikasteari ekin zion eta 1617.ean legeetan lizentziatutitulua erdietsi zuen.

1618.eko apiriliaren 23an, Mauleko familia nagusiek gobernuko diputatu izateko bidalitako hautagaien artean dugu.

1623.ean Zuberoako hirugarren estatuko sindiko hautatu zuten eta gobernuaren lehen bi estatuek (aitonen semeenak eta elizgizonenak) haren izendapena galerazi nahi izan arren, bere karguan berretsia izan zen. Hau 1625.eko maiatzaren 3an izan zen. Urte horretan bertan argitaratu zen, Oihenart-i egozten zaion «Déclaration historique de l'injuste usurpation et rétention de la Navarre par les Espagnols» idazki izengabea ere.

1626.eko maiatzaren 13an, errege-dekretu batez, Zuberoa Bordeleko parlamentuaren eskumeneko lurralde izendatzen dute. Urte berean, abenduaren lehenengoan, Nafarroako Parlamentuak Biarno eta Nafarroa Behereari Zuberoarekiko harreman politiko guztiak eragozten dizkie, eta Oihenart eta Gabriel Etchart, Zuberoan errege-gorteko diputatu zena atxilotzeko agindua ematen du.

1627.eko urtarrilaren 8an, kontseiluko dekretu batez, Oihenart eta Etchar-en aurka Pauen emandako agindua indarrrik gabe uzten dute.

1627.ean Joana Erdoy aitonen alaba aberatsarekin ezkondu zen, 32 urte zituela. Joana artean alarguntsa zen eta ez hain gaztea, dirudienez, lehen aldiz 1608.ean ezkondu bait zen.

Ezkondu ondoren, bizilekuz aldatu zen, bizi izatera senar-emazteok Donapaleura joanez. Han ere izan zituen karguak: Nafarroako Parlamentuko eta hiriko zinegotzi.

Ondorengo urteetan ere, herri-gizon zenez gero, politikanetan aritu zen. Baina herri-gizon izanez gainera, bazituen beste joera batzu ere; esaterako, histori ikerketak eta euskal gaiak. Horretan aritu zen bere ogibideko lanetatik at gelditzen zitzaizkion astiuneetan.

1637.eko azaroaren 15ean, «Notitia utriusque Vasconiae» inprimatu eta Parisen argitaratzen du. 1638.eko urtarrilaren 25a baino lehen zabaldu zen.

1653.eko abenduan emaztea, Joana, hil zitzaion.

1656.ean «Notitia utriusque Vasconiae» obraren argitarapen berria egiten du, gehitua eta hobetua.

1657.eko irailetik azarora bitartean, Oihenart Parisen dugu lanean. Bere bigarren liburua, euskal idazle gisa osperik handiena eman diona, prestatzen ari da: «Les Proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les Poésies basques du mesme auteur».


1661.eko maiatzaren 30ean, Sylvain Pouvreau-ren hiztegitxorako oharrak biltzeari hasiera eman zion.

1665.ean idatzi zuen «L'Art poétique basque», 1967.ean P. Lafitte euskaltzainak argitaratu zuen GURE HERRIA aldizkarian.

Ziurtasun osoz ez dakigu noiz hil zen, baina 1667.aren azkenerantz hil zela dirudi. Urte horretako urtarrilaren 26tik otsailaren 28ra bitartean, A. Moret-ekin postazko harremanak izan zituen, zenbait kultur gairi buruzko eritzi desberdinak argitzeko edo. Apirilaren 8an ordeinua edo hilburukoa egin zuen Donapaleun eta 1668.eko urtarrilaren 14eko agiri batetan hiltzat ematen dute.

## Gainerako argitarapenen xehetasunak

1929.ean, Euzko-Ikaskuntzak eman zuen gaztelaniaz «Notitia utriusque Vasconiae», J. Gorosterratzu-k egindako itzulpenaz; bigarren argitarapena erabili zuen itzultzaileak. Hitzaurre luze bat ere ezartzen du, Oihenarten pentsaeraz hainbat eritzi emanik.



Haren lana interresgarria, ongi oinarriturik egina dela dio eta orduko jakintsuek oso erabilia. Horregatik harritzekoa dela, 1656. urtean egindako bigarren argitaraldiaz gero, beste argitarapenik egin ez izana. Egilea ere biziki gorai patzen du. Baina zenbait gauza haren pentsaerari dagozkionak direla soilik eta beste zenbait oker daudela ere adierazi nahi dio irakurleari: (...) conviene que el lector la tenga a

la vista y es causa del modo de opinar del autor en unos puntos, y de error en otros.

Handi-handika esanik, hauxe egozten dio zuberotar historialariari: Oihenartek, Iparraldeko euskaldunak Hegoaldeko

enborretik datozela, hau da, Nafarroa dela guztien sustraia eta hortik askatuak izan zirela jakin arren, begirada eta bihotza Frantzian dituela idazten duela...

Euskarazko haren lanen bigarren argitarapena Francisque-Michel-ek egin zuen Bordelen, 1847.ean, Artxuren laguntzaz: «Proverbes basques recueillis par Arnaut Oihenart suivis des poésies basques du même auteur. Seconde édition revue, corrigée, augmentée d'une traduction française des poésies et d'un appendice et précédée d'une introduction bibliographique», «Uskarazko zuhurhitzac Aillande Oihenartec bildiak zionean ondoti jiten beitira uskaraz ehin zituen neurt-hitzac. Bigarren Edizionia arra ikhussia, gaztigatia, emendatia neurt-hitz frantsesiala itzuliez eta beste zerbatez zoini aitzinian uskaraliburuen gainen ezarri beitzaio lanenghinbat». Argitaraldi honetan, 225-250 orrialdeetan, bestean agertzen ez diren poema batzu ere badatozela dio L. Mitxelenak (ik. Mitxelenaren Idazlan Hautatuak 237. orr.).

### **Oihenarten nortasuna**

Euskal idazle den aldetik, Oihenart oso berezia dugu. Garai hartan, eta ia gure garaira arte, euskaraz idazten dutenak elizgizonak dira. Oihenart, Sarako Etxeberri, Bizenta Mogel... ale bakanak dira bestelakoak; eta hauetariko batzuri ere eliz usaina darie. Oihenart, ordea, berezia dugu horretan ere. Bere lanik sonatuena latinez idatzi zuela? Bai, baina horrek euskaldun laiko jakintsua, kulturaz oso jantzia zela, besterik ez du esan nahi. Erabili zituen gaiak eta idatzi zituen lanak ere ez dira erlijiozkoak, bestelakoak baizik.

Biografoek gizon jakintsu, prestu, hotz eta kritiko seriotzat jotzen dute. Koldo Mitxelenak dioenez, giza mota hori gure artean ez da ugaria, ezta onetsia ere...

Beste aldetik, haren ogibidekoak nekez ikus zitezkeen euskal letrei emanak.

Euskararen lexikoari eta poesia egiteari dagokinez ere, bere ideia finko eta garbiak zituen. Lexikoari buruz, garbizalea da; poesian ez du onartzen ordurarteko herri-olerkarien joera eta «L'Art Poétique» idatziz, bide berria gomendatzen du. Gainerako hizkuntza nagusi eta landuetan poesia nola egiten den azaltzen du; esaterako: latinez, frantsesez, gaztelaniaz, italieraz... Hizkuntza horietan egin ohi den antzeko olerki jantzia, landua nahi du Oihenartek euskararako.

Goraxeago hotza eta kritiko serioa izan zela adierazi dugu. Horregatik, bihotzak agindurik eta ez arrazoiak, zabal zebiltzan ideiak arbuiatzeko joera agertu zuen. Luis Villasantek bere «Historia de la Literatura Vasca» liburuan dioena ekarriko dut hona: este su mismo rigor crítico y pasión por la objetividad fue tal vez causa de que muchos autores vascos posteriores, siempre fáciles en dejarse llevar por el entusiasmo a admitir cuanto parece más glorioso para su país, le critiquen con dureza y aun le juzguen como mal vasco. Así Etcheberri, el médico de Sara, el mismo P. Larramendi, etc., Luis Mitxelenak ere antzekoak idatzi zituen; haren hizkuntzarekiko eritziak, gaur egun zuzentzat edo ongi bideratutzat ditugunak, ondorengo gramatikariek gaitzetsi egin zituztela diosku: 'se le encontraba demasiado imparcial y amigo de exigir pruebas para ser un buen patriota' (ik. «Historia de la Literatura Vasca», 75-76 orr.)

### **Oihenart poeta?**

Luis Villasante eta Luis Mitxelenaren eritziak aipatuko ditut gehien bat. Tamalgarrizat du honek euskarazko lan originala bertsoz egin izana, Oihenart ez bait zen poeta haren ustez. Ez zen poeta, baina bai bertsogile oso trebea eta hizkuntza oso ongi ezagutzen zuena. Sentimendu saminek eta barnebarnekoek ziztatzten dutenean ere, adibidez emaztearen heriotzeak, ez du lortzen ederrez eraldatzea eta goi-goiraino hegaldatzea.

Idea hauek 1960.ean argitaratu zen «Historia de la Literatura Vasca» liburuan agertu zituen Mitxelenak. Beraz, Mauleko idazleari buruz eman zuen azken eritzia, guk dakigula. 1953. urteko BRSVAP aldizkarian argitaratu zuen berak. Oihenarti buruz egindako hitzaldia, gero, «Mitxelenaren Idazlan Hautatuak» izeneko liburuan Patxi Altunak berrargitaratua. Hemen ez du aburu hain finkorik agertzen.

Etxepareren poesiarekin gonbaratzen du. Maiteminduen erara ari da bere barneko sentimendu saminak negar-zotinka adierazi beharrez. Hala dio Mitxelenak, «Argia» eta «Xuria» direlakoei eskainitako ahapaldi batzu hitzez hitz tartekatu ondoren:

'Baina negarrak, zinkuriak, zauriak eta heriotza aipatu arren, ez digu halako bihotz ondokorik ematen. Axalekoak dirudite Etxepareren hitzen ondoan. Honenak, soilagoak eta zakarragoak izanagatik, kementsuago iharrausten gaituzte, hobeto ezagutzen baitzuen amorioaren indar purrukatzailea eta maiteminak jo duen bihotzaren ezinetsia'.

Hautatu duen Etxepareren ahapaldia, izan ere, zoragarria da. Ba ote da amodioa hobeki adierazterik?

'Amorioa ezin zenzuz ezin daite goberna,  
Arnoak bano gaizkiago ordi diro persona,  
Suyak bano gaizkiago erra diro gizona,  
Itxasoak ez iraungi eraxeki dadina'.

Errenteriar kritiko zorrotzak ere, hemen, inoren eritziak aipatzen ditu. Batez ere eritzi kontrajarriak ematen dituzten Francisque-Michel eta Orixenerenak. Hark nola-halakotzat ditu Oihenarten olerkiak: 'Oihenart poetak ez du merezi, ene ustez, Oihenart historilariari zor zaion laudorioa; bi dohai horiek, ordea, elkar ezin ikusi dutenak izaki, apika'. Orixek, ordea, goraxeago jartzen du Oihenart, poeta landuen ohorea emanez. Hona Mitxelenaren aipamena hitzez hitz: 'Gure Orixek, berriz,

berez zorrotz xamarra izanik, neurtitz gaietan batez ere, ez ditu zeharo gaitzesten. Jakite lanez kanpora ere, zorretan gaude Oihenartekin, «poeta landuxea izanik, neurtitz politak utzi zizkigulako. Etxepare baino landuagoa, zailuagoa, arinagoa... Baditu burutapen ugari, erderatik artu arren, euskarara ederki egokitzen dituenak... Gaur den egunean ere lanik aski Oihenart-en neurtitzak baino legunagorik, landuagorik, jasoagorik egiten».

Orixen horretan fidagarriagotzat du eta honen eritzia ere sinesgarriago. Zergatik? Francisque-Michel, hizkuntza ezagutu gabe, Artxu-ren laguntzaz, iritsi zen Oihenarten poesiaren ingurumingurura, baina haren muinmuinera sartzerik, hitz-jokoen mezu xumea dastatzerik ez zuen izango ezbairik gabe. Entzun diezaiozun Mitxelenari:

‘Ezin esan beretzat eta bere laguntzaile Artxurentzat, neurtitz horiek zeharo *bortus conclusus* direnik, baratz e gutxi gorabehera behinik behin, zertaz ari zen Oihenart; ahapaldi osoak ere adituko zizkizuten batzuetan. Baina kritikaren oinarri nagusia, hitz eta esaldien mami ezkutua atzematea, gehienetan falta zitzaien’.

Azken batez zer dio Mitxelenak, poeta zela, ez zela? «Historia de la Literatura Vasca» liburuan garbi esaten du ezetz. Hemen



San Juan Parrokiako Andre Maria



ez du aburu finkoegirik agertu nahi; baina lerropean interpretatzera joz gero, gauza bera dio hemen ere:

‘Horrenbesterekin esan dut ez dudala Oihenart poeta bezala gutxietsi nahi. Egiazko poeta dugu hortaz? Egiazko poesia, egia esan, poesia huts, garbi, gorengo hura, gertakari bakana izaten da edozein leku eta edozein alditan’.

Luis Villasanteren eritziaren bila hasiz gero, honek ere Etxeparerekin gonbaratzen du. Gaia berdintsua darabiltela biek, baina Oihenartek erretorika askoz ere hobeki menderatu eta hizkuntza ere garbiagoa, txukunagoa erabili arren, Nafarroa Behereko olerkari zaharrari ez diola hurrik ematen. Eta honetaz René Lafonen hitzak aipatzen dizkigu Luis Villasantek: «su poesía es mucho menos profunda y poderosa que la de Detxepare; frecuentemente artificial, a veces preciosista; con todo, no está desprovista de encanto en algunos pasajes».

Oihenarten olerkiaren mireslerik ere bada gure kritikoen artean. Orixerenak agertu ditugu, Mitxelenak aipaturik. Miresle hau Aingeru Irigarai dugu. Gure olerkarien artean finenatarikotzat jotzen du. Haren gainerako obregatik dela ezagunagoa diosku; historialari den aldetik bereziki, «Notitia Utriusque Vasconiae» lan bikainagatik; gure atsotitz eta erretrauen biltzaile den aldetik ere nahiko aipatua, baina Oihenart olerkaria ia inork ere ez duela ezagutzen eta kexu da Iragarai jauna. Argitarapen desberdinez xehetasun batzu ematen dizkigu ondoren. Francisque Michel-ek Artxu-ren frantseseko itzulpenaz egindako bigarren argitarapena aipatzen du. Itzulpenaz ez dator bat hainbat pasartetan eta berak ematen du zuzena deritzona, baina gaztelaniaz. Obra honen hirugarren argitaraldi bat behar-beharrekoa litzakeela dio, atsotitzen eta olerkien gaztelaniazko itzulpenarekin, olerkiak poeta on batek bertsoz itzuliak beharko lukete izan: ‘esta es la única manera de dar a conocer ventajosamente nuestra Poesía o una muestra de ella al público desconocedor de nuestro idioma’.

## Poesia landua eta metrika

Lehenago ere esan dugu Oihenarten pentsaera poesia egiteari buruz. Ez zuen hark onartzen herri-bertso eta koplak idazteko euskaldunen arteko joera. Hizkuntza nagusi eta landuetan olerkiak ontzeko erabiltzen ziren baliabideak gurean txertatu nahi zituen. Mitxelena jaunari uzten diot orain ere hitza: 'Bertsoak, koblak, edozein jende-mendek errax egin ditzake. Ez da hori, ordea, gizon landuei dagokienez hitz-neurtuz mintzatzea. Lege zorrotzagoak jartzen dituzte hauek, eta eragozpen-debekuak elkarren gainka. Zailago eta ederrago, eta ezina ederren, egingo balitz'.

Beheraxeago, honela adierazten digu haren gogo eta joera:

'Oihenartek ordu arteko euskal bertsoak entzunak edo irakurriak zituen. Aldizka agian atseginez, baina ez aurkitzen gogo-betegarri. Berak zituzkeenak, ez ziren herri-kanta horiek. Ezin bera horrelakoak egiten hasi,

Banintz bezain

Zenbait betzain

Edo ilhagin zarpazu,

ez baitira hizkuntza landu baten poesiari dagozkionak'. Hark frantsesez dioena euskara itzulirik honela dakarkigu: «Euskaldunek, poesiara aski emanak izanagatik, ez dituzte orain arte honen legeak bete; bete ez ezik, bai badirudi haien berririk ere ez dutela izan» (ik. Mitxelenaren Idazlan Hautatuak 240. orr.).

Oihenarten metrikaz ikerketa sakonak egin dituen Patxi Altuna dugu gure artean. Harengana jotzea gomendatuko nioke gai horretaz gehiago jakin nahi lukeen irakurleari. Patxi Altuna jaunak, haren metrika-arauak nola egokitzen diren nahiz ez diren egokitzen zubereraren azentuarekin Oihenarten olerkietan ere ikertzen du, beste gauza askoren artean. Ezaguna da Oihenartek, azentuari dagokionez, egin ohi zuen bertso

errimatuen arteko bereizketa: arrak (azken silaban azentua dutenak), emeak (azken aurrekoan azentua dutenak) eta esdrujuloak; beraz, oxitonoak, paroxitonoak eta proparoxitonoak. Silaba arrik ez du onartzen; bertso errimatuan silaba emea dugunean, silaba eta erdiko hoskidetasuna behar dela dio; esdrujuloa edo proparoxitonoa denean, berriz, bi silaba eta erdikoa.

Oihenarten euskara zehatz-mehatz aztertzea ere bazen nire gogoan, baina oraingoz, ia luzeegi ere ihardun ote dudan beldurrez, honen bestez agur egiten dizut, irakurle!

*Luis Baraiazarra*